

ESTIBAUS

Boletín de ALTZAKO HISTORIA MINTEGIAREN Buletina nº 11 zbk. diciembre 1998ko abendua

"aiuntados en el campo de Estibaús según que lo havemos de uso de costumbre de nos juntar..." (Altza, 1390)

Duela 20 urte...

Antton ALFARO

Pasa den abenduaren 6an Espainiako Konstituzioaren 20. urteurrena bete zen. Franco diktadorea hil ondoren, Espainia Estatuan hasi zuten prestatzen konstituzio berri bat. Erreformaren prozesu honetan bi referendum planteatu ziren, lehenengoa 1976ko abenduaren 15ean izan zen, Erreforma Politikaren prozesua arautzeko, eta bestea bi urte beranduago, 1978ko abenduaren 6an, konstituzio berria onartzeko.

Euskal Herrian, Konstituzioaren referendumen aurrean talde politikoek jarrera desberdinak zeuzkaten. UCD, PSOE, PCE-EPK, EKA, ORT eta DCVk baiezkoaren aldeko kanpaina egin zuten. Bestalde, EE (EIA-EKIA), HB (LAIA-HASI-ANV-ESB), LKI eta OCR(BR)k

ezezko botoa bultzatu zuten. Eta azkenik, PNV, EMK, PTE, ESEI eta OICK abstentzio aktiboa proposatu zuten. Garai hartan, gaur egun konstituzioaren defendatzaile amorratuak, Alianza Popular, ez zuten jarrera garbirik izan.

Nahiz eta Donostialdean talde politikoek referendumen kanpaina mitin nagusiak egiteko Anoeta Frontoia eta Belodromoa erabili, Altzan ere mitin eta hitzaldiak egin ziren. PCE-EPKk, adibidez, bi mitin antolatu zituen baiezko botoa eskatzeko: bata Bertsolari Txirritan zeukan egoitzean (78-11-28) eta bestea, Martuteneko eskolan (78-11-30). SUK (Sindicato Unitario) baiezko botoa eskatzeko ere, hitzaldi bat antolatu zuen Santa Barbarako egoitzean (78-11-22).

Baina, Altzan izan genuen mitin garrantzitsuen Bidebieta Polikiroldegian izan zen (78-11-25). Mitina PSOEek antolatu zuen eta 400 lagunengatik Alfonso Guerra eta Enrique Mugicak hitzegin zuten Espainiako Konstituzioari baiezko botoa eskatzeko.

Estatuan konstituzioak gehiengoa lortu zuen arren, Euskal Herrian heren batek bakarrik baiezko botoa eman zion. Altzan ere, grafikoan ikus daitekenez, ez zen Espainiako Konstituzioa onartu.

Baina garai hartan, nahiz eta erreferenduma garrantzitsua izan, altzatarrok beste kezka eta arazoak bagenez ere. Altzagaineko frontoien estalketarena pil-pilean zegoen, eta obrak hasita ziren arren, auzokideek geldiaraztea lortu zuten eta asanblada batera deialdia luzatu zuten proiektua birplanteatzeko.


Rotetan, orain dela 20 urte, auzoko urbanizazioa zen kezka nagusia. Oso haserretuta zeuden Udalak ez zituelako betetzen hartutako konpromezuak, eta gaia aztertzeko Auzo Elkarteak Los Boscós zineman, abenduaren 1ean, bilera batera deitu zuten.

Herrera ere ez zeuden oso gustora, eta egun hoietan zeukaten kezka, gaur egun ere badaukate: sarbideak. HERRIPE Auzo Elkarteak agiri bat kaleratu zuen Herrera eta Larratxoren arteko errepidearen obrarekiko Udal Gestorak zeukan jarrera salatuz.

Berri onak ere bazeuden eta Bidebietan, alegia, dirua lortu zuten eskola berrian jolaslekua eraikitzeko.

Hogei urte bakarrik pasa dira . . . baina hau urruntasuna!*

1978ko REFERENDUMA* ALTZAKO emaitzak



*Iturria: E.A.E.ko HAUTESKUNDEETAKO DATUEN BILTEGIA (Eusko Jaurlaritza)

Hace 20 años se celebró el referendun de la Constitución cuyos resultados en Altza, con una abstención mayoritaria, se pueden apreciar en el gráfico. Pero además del referendun los vecinos de Altza estábamos inmersos en la pelea por mejorar nuestras condiciones de vida: cubierta del frontón del Casco, urbanización de Roteta, accesos de Herrera, la escuela de Bidebieta...


Egutegia

ALTZA GURE HERRIA

1999

Urtarrila / Enero, Otazta / Febrero, Martxo / Marzo, Apirila / Abril, Maiatza / Mayo, Ekaina / Junio, Uztaila / Julio, Abuztua / Agosto, Iraila / Septiembre, Urria / Octubre, Azaroa / Noviembre, Abendua / Diciembre

Logos: GURE HERRIA, ALTZA KULTURA PARTIDUA, EROSKI



Koldo Izagirre
"Euskararen Historia txikia Donostian 1800-1998"

Azaroaren 23an Casares Kultur Etxean Koldo Izagirrereren azken bi lanak prentsa aurrean aurkeztu ziren. Batetik, Joseba Tapiarekin osatutako "Apoaren edertasuna" izenburua duen diska. Eta bestetik "Euskararen historia txikia Donostian 1800-1998" liburua. Liburuari helduz, nabarmenduko genuke hemen "historia txiki" horretan Altzak duen txokoa, txikia hau ere, baina interesgarria. "Txirritak ez zekien euskaraz", Arri-berri eta Arri-zar leku izenenekin egindako aldrebeskeriei buruzko artikulua. "Haltzak ez du bihotzik", "Zain bana bihotzean" eta "Mihien hizkuntzak" artikuluetan aurki ditzakegu Altzarekin loturiko gaiak.

Aurten aurreneko aldiz egutegi bat argitaratu du Altzako Historia Mintegiak. Kolorez eta "Altza, gure herria" lelopean, ohiko hilabeteak ezezki argazkiaz orniturik dago Joxerra Fernandez bazkide eta lagunak eginak. Argazkietan irudi hauek ikus daitezke: Altzaren ikuspegi orokorra, Errotetako etxeak Aiako Harria elurturik atzealdean duelarik, San Markos mendia, Lorete auzoa atzean Pasaiako portuarekin, eta ilunabarra Altzagainan. Egutegia doan banatuko bazkide, elkarte eta, orohar, Altzaren lagunen artean. Interesaturik bazaude Casares Kultur Etxetik pasa zaitezke.

Colección Local

Un nuevo paso adelante

Altzako Historia Mintegia va a firmar un convenio con el Patronato de Cultura para actualizar y revitalizar la Colección Local de Casares. Durante los tres meses que va a durar el convenio el trabajo se va centrar en tres aspectos básicos de la Colección que son la catalogación de los documentos recogidos y pendientes de catalogación, mejorar la presentación de los fondos con el fin de mejorar su consulta, poner en marcha un servicio de atención al público que dé satisfacción a la demanda existente y fomente el uso de la Colección.

Gazteluene bertso eskolaren aurreneko hilabeteak

Altzako gazte batzuek, bertso senak baultzatuta, eskola bat sortzearen ideia buruan genuela eta Hernaniko bertso eskolaren (Aitor Mendiluze bertsolaria bereziki) laguntzari esker, asmoak egi bihurtu ditugu.

Gazteluene baserria gogoan izan genuen eskola honen izena jartzeko orduan, bertan bertsolaritzaren aintzindari eta maisu haundi bat (zentzu guztietan) bere bizitzako urte mordoak baserri honetan eman baitzituen, Jose Manuel Lujanbio hain zuzen, Txirrita. Izen hau Erreterriako baserri bati zor dio,

bere gazte garaiak bertan igaro zituen eta Altzako herrian bere bizitzaren azken urteak. Langile amorratua ez zen parranda eta sagardotegi giroa gustoko zuen arren bertsolaritzan figura eta bertso inguruko lan aberats ugarien egilea dugu. Gu berriz, bertsolaritza inguruan lehen urratsak emanez hasi gara, lana gogotik eginez –Txirrita ez bezala-, Gazteluene bertso eskolak euskal herriko bertsolaritzan toki bat izan dezan.

Txirrita eredu, Euskara hizkuntza, bertsolaritza bide eta Altza herri

dugula, nahaste honetatik gure bertso eskola sortzen da. Bertso eskola gaztea, altzatarra, euskalduna eta bertsozalea. Eskola hutsak duen funtzioz gain, Altzan bertsolaritzaren inguruan lana gogotik egingo dugu, euskara eta aho tradizioa bertan zabaldu daitezen.

Gaur egun Altzako bertsolaritzak eredu bizi bakarra dauka, Garberako Barandiaran hain zuzen. Beraz Txirrita, Barandiaran eta beste bertsolari batzuek ereindako hazitik, sustraiak indartu eta haltza sendo bat egiteko itxaropenaz...



Txirrita da bertsolaritzaren eredu eta giltza, Gazteluene etxea eta euskara dugula hitza, gazte altzatar batzuek lanean eskola hontan gabiltza, Euskara altxatzeaz gain ere indartuz bertsolaritza

BAZKIDE TXARTELA - ¡HAZTE SOCI@!

Elkarrekin gehiago egin dezakegu. Izan zaituz ALTZAKO HISTORIA MINTEGIAren bazkidea.

Tú también puedes participar. ¡Hazte soci@ de ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA!

La cuota anual es de 1.000 pts. / Urteko kuota 1.000 pezetakoa da.



Nombre y apellidos / Izen-abizenak:

Dirección / Helbidea:

Localidad / Herria:

Posta Kodigoa:

Telefonoa:



¡Ya viene ZURRUNBILO !

Primero y ante todo; bienvenid@s tod@s a este nuevo espacio comunicativo, que bajo el nombre de ZURRUNBILO pretende ser un instrumento para que l@s jóvenes de Altza podamos expresarnos y comunicarnos entre nosotr@s.

ZURRUNBILO nace con la idea de constituir un escaparate donde l@s jóvenes tengamos la oportunidad de expresarnos libremente mediante artículos de opinión, anuncios de actividades etc.

De igual modo, no queremos dejar de lado la opción que nos da una revista de estas características para que l@s jóvenes podamos conocer todo lo que ocurre en Altza a nivel juvenil y conseguir de esa manera una comunicación más fluida, de forma que ZURRUNBILO pretende aglutinar diferentes colectivos y grupos juveniles de Altza, tanto sociales, culturales, musicales como deportivos, y que sean ellos mismos quienes den a conocer sus proyectos así como sus actividades. Al fin y al cabo, que ZURRUNBILO

lo construyamos entre tod@s y para tod@s. ZURRUNBILO pretende contemplar diferentes secciones, que irán tomando forma en números posteriores: Música, Relatos, Cómic, Cultura, Tiempo Libre, Euskara, Agenda... así como la más importante, que es la que constituirán los diferentes grupos de jóvenes de Altza.

Si os interesa participar de alguna manera en sacar la revista adelante, mandarnos una nota al apartado de correos que daremos a conocer a partir de enero y en breve nos pondremos en contacto contigo.

ZURRUNBILO: Altzako gazteon aldizkaria

Altzako Gazte taldeen ahotsa izatea du helburua, bertan hauen proiektu eta ihardueren berri jaso ahal izango duzu. Honekin batera, Altzako gazteon arteko komunikazioa indartuko duen tresna duzu.

Otsailaren bukaeran izango da salgai lehen zenbakia. Egin zaitez harpidedun!

Artikuluak, elkarrizketak, musika, gazte kultur gileak, . . .

Hau guztia eta abar luzea ZURRUNBILO -n!

Irentsiko zaituen zurrunbiloa!!!

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación